

## *Kostuen egitura*

Gure enpresaren kostuen egitura honako hau izango litzateke:

Alde batetik, gure kostu finkoak lokalaren alokairua izango litzaateke. Aldi berean, kanpoko enpresei ere ordainduko diegu, zenbait zerbitzu eskain diezaguten, hala nola: garbiketa, informazioa prozesatzeko ekipamenduen mantentze-lanak... Honekin batera, esan beharra dago langileok ez dugula soldata finkorik izango, eta komisiotatik lortuko ditugu irabaziak, gure aliatuarekin lortzen dugun irabazien portzentai bat eramango dugu ere.

Bestalde, gure kostu aldakorak besoak Espainiara ekartzeak dituen kostuak izango lirateke (bion artean ordainduko da). Izan ere, guk ez dugu biltegirik izango, eta produktua bezero kopuruaren arabera ekarriko dugu Espainiara. Gainera, bezeroen besoen mantentze-lanerako beharrezkoak diren materialak ere ekarri behrako ditugu.

Era berean, gure proiektuak hasieran inbertsio handia eskatuko du, Kinovarekin aliantza egin ondoren besoa Espainiara ekarri beharko delako, eta hori oso garestia izango da.